

LANEAN EMATEN DEN JAZARPEN MORALAREN AURKAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ADIERAZPENA

(Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Koordinatzaileak 2005eko ekainaren 22an egindako bilkura arruntean onetsia)

Dokumentu honen asmoa da jardunbide egokien adierazpen bat jasotzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileen artean jazarpen morala izatea eragotziko duena, edozein izanda horien artean ezartzen ahal den antolaketa erlazio maila: goranzkoa/beheranzkoa, beheranzkoa/goranzkoa edo horizontala.

Printzipio orokorrak

1.- Jazarpen moralizat ulertuko da: desiratu gabeko portaera bat, helburu edo ondorio izanen duena pertsonaren duintasuna gutxietea eta giro beldur eragilea, degradatzailea eta iraingarria sortzea. Heinz Leymann irakasleak garatutako kontzeptuaren arabera jazarpen moralizat zera hartzen da: egoera bat non pertsona batek (edo egoera bitxietan pertsona talde batek) muturreko bortizkeria erabiltzen duen, modu sistematiko eta errepikakorrean (astean behin batez beste) eta denbora luzez (sei bat hilabetez batez beste) beste pertsona edo pertsonen gainean, lantokian, ondoko helburuekin: biktima edo biktimen komunikazio sareak deuseztatzea, bere ospea suntsitzea, bere eginkizunen betetzea nahastea eta azkenik pertsona hori edo horiek bere lantokia utz dezaten lortzea.

2.- Europako Parlamentuak 2000ko urriaren 23an Europar Batasuneko Batzordeari eskatu zion abian jartzeko lan jazarpenaren gaineko legeria. horrekin aitortu nahi da modu efektiboan «laneko ongizatearen ikuspegi orokorra», gogoratuz Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean, 1. ataleko 31. artikuluan dioena: «langile orok eskubidea du bere osasuna, segurtasuna eta duintasuna errespetatzen duten baldintzetan lan egiteko».

3.- Bestalde, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak uztailaren 15an emandako 46/2004 Foru Aginduak onetsi egin zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek herritarrekiko harremanetan jarraitu beharreko Administrazioaren jardunbide egokiaren kodea, askatasuna, berdintasuna eta justizia bezalako balioen aurka doazen arau administratiboek muga argia jartzen diena.

4.-Administrazioa kontziente da jazarpen moralaren biktimek beren osasunaren galera prozesu handia pairatzen dutela. Osasunaren galera hori islatzen da kaltetutako pertsonaren egoera fisiko, mental eta sozialean.

Ez da nahitaezko baldintza jazarleek inolako intentzio, xede edo helbururik izatea. Aski da, beren portaeren ondorio gisa, sortutako ondorioak jazarriaren duintasunaren aurkako egintzak ekartzea, edo giro beldur-eragilea, degradatzailea eta iraingarria sortzea.

5.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileen artean sortzen den edozein harreman motak kontuan izan beharko du beti, oinarri eta muga gisa, pertsonaren duintasuna eta pertsonari berez dagozkion eskubide bortxaezinak errespetatzea.

6.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek beren jardueran bermatu beharko dute bertan zerbitzuak ematen dituzten langileen tratu berdintasunaren printzipioa. Egoera berean dauden pertsona guztiei tratu bera emanen zaie. Tratu desberdina emanez gero bermatuko da hori modu arrazional eta objektiboan justifikatua egotea, kasu zehatzaren ezaugarriekin bat.

7.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoetako langileen jardun eta portaerak zuzentasunaren eta ez-baztertzearen printzipioei lotuko zaizkie. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoetako langile guztiek saihestuko dituzte ekintza arbitrario guztiak, nahiz edozein arrazoi dela medio emandako lehentasunezko edo pribilegiozko tratuak.

8.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuko 56. artikuluko e) atalean ezarritakoarekin bat, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan lanean ari diren pertsona guztiak, errespetuz eta zuzentasunez tratatuko dituzte goikoak, lankideak, menpekoak eta administratuak".

9.- Pertsonen duintasun, errespetu eta zintzotasunaren aurka doazen portaerak egin, eragin, baimendu edo estaltzen dituen pertsona oro diziplina erantzukizunen eroriko da, Nafarroako Administrazio Publikoko Funtzionarioen Diziplina Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat.

10.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoak beren kargu zerbitzuak ematen dituzten pertsonen osasunean kaltea eragin eta aurreko puntuetan deskribatu diren jarreraren erantzule izanen dira, legeetan aurreikusten diren baldintzekin, atzerapen edo utzikeriagatik. Nafarroako Foru Komunitatean zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztien jarduerak eta jarrerak indarreko legeriaren mende egon beharko dute.

11.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte bermatzeko jardunbide egokien adierazpen honek hedapen zabala izan dezan beren egoitzetan lan egiten duten pertsonen artean. Zehazki, bermatuko dute horien publizitatea, testu osoa izanen duten gutun edo liburuxken bidez, eta Nafarroako Gobernuko Intraneten sartuko da.